



# ortzadlar

larunbata, 2018ko abenduaren 1a. 571. zenbakia

noticiasdenavarra.com

**euskal kulturaren kolore guztiak**

## IZAKI GARDENAK

Jon Basagurenek gidatzen duen taldeak prest du 'Dena oskol' bere laugarren estudioko lana

-- 4-5. orrialdeak --









**literatura**

**Poza.** Uxue Alberdik eta Eider Eibarrek ondutako liburua ez da horren ohikoa, argitaletxearen arabera: “Batetik, ume oso txikiei zuzendutako lana delako. Bestetik, pozaren aldarria gutxitan landu ohi delako literaturan, bestelako asmo pedagogikoak eta funtzionalak ematen zaizkio literaturari, baina ez pozari kantu bat besterik gabe”. Ilustrazioek duten indarra eta iradokitze ahalmena ere berezia dela nabarmendu du Elkarrek. Argitaletxetik gaineratu dutenez, “liburuarekin batera beste bi osagarri eskaintzen ari gara: kanta bat (Iban Urizarrek konposatua eta sarean entzungai egongo dena), eta animaziozko bideo bat”.

**ESTEREOTIPO BERRIAK** Marimatrakak bilduma ere gomendatu nahi izan du Elkarrek. Liburu hauek haurtzaroren aldarrikapen bat dira, neurri batean: “haur izatearen pozaz hitz egiten digute, zailtasunez ere bai, baina alaitasunetik”. Bestalde, “bi neskato marimatrak aurkezte ere gauza berezia da, normalean mutilek bete izan dutelako leku edo funtzio hori literaturan, orain arte. Estereotipo berriak sortu nahi izan ditugu. Liburuaren formatua eta diseinua ere berritzaileak dira: komikia, arintasuna, oso grafikoa...”

Miren Agur Meabek itzulitako *Urpeko bidai handia* da Ttartalo argitaletxeak dakarren beste proposamenetako bat: “liburu ederra izateaz gain, itsaspeko mundua deskubritzeko album originala eta ikusgarria delako gomendatuko genieke irakurle txiki eta ez hain txikiei”, agertu dute argitaletxetik. Sonarus izeneko itsaspekoarekin ozeanoko uretan murgiltzeko gonbita jasoko dute, eta harekin batera ur garden eta ilunetan, lasai eta mugituetan, hotz eta epeletan zehar ibiliko dira”. Liburu honek, bestalde, soinu banda dauka eta QR kode bati esker, “umeeke testu poetikoaz eta marrazkiez gozatzen duten bitartean, itsas hondoko soinu misteriotsuak eta animalien hots liluragarriak entzuteko aukera izango dute. Bertan egongo balira bezala!”

Elkar argitaletxeak, bere aldetik, bertsotan eginiko album ilustratu bat proposatu du Durangorako:

Azkenik, Erein argitaletxeak aurkeztuko dituen nobedadeen artean, *Ane eta Moon*, *Ilargira bidai* liburua aurki daiteke. Istori honetako bi protagonistei esker, adiskidetasuna zein garrantzitsua den ikasi ahal izango dute etxeko txikienek. *Altzoko Handia* izeneko ipuin-bilduma ere aurkeztuko du Ereinek Landakon. Aurreneko bi izenburuak *Altzoko Handia eta Kutixiren gezurrak* eta *Altzoko Handia eta Kutixiren pianoa* dira, biak album formatuan argitaratuak. Ipuin bi hauen testu poetikoak Koldo Izagirre idazlearenak dira; irudiak, berriz, Irrimarra bikote sortzailea osatzen duten Karnele Gorroño eta Irene Iruretarenak dira.

**OIHANE FERNANDEZ****IDAZLEA****“Transexualitatearen gaia lantzeaz aparte, sentimenduak oso presente daude liburuan”**

**L**UKAREN istorioa kontatzen du Oihane Fernandez idazleak *Sekretuen hamaika zapo*ak izeneko liburuan. Protagonistak hainbat sekretu gordetzen ditu, sekretu txikiak, zein handiak, gaziak zein gozoak... baina, bada zerbait sekretu guzti horien atzean ezinegona besterik sortarazten ez diona, gauero lo egiten uzten ez diona. Luka, oraindik inork jakin ez arren, mutil bat da.

Oihane Fernandez (Getxo, 1986) haur eta gazteentzako zapigarren liburua da *Sekretuen hamaika zapo*ak. Fernandez Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna eta Haur Hezkuntzan diplomaduna da eta gaur egun euskara irakasle dihardu. Literaturako hainbat sari ere irabazi ditu: Xabier Lizardi XXXI. saria, Portugalteko Uri-urrian lehiaketa, Santurtziko emakumezkoen literatura saria, Bizenta Mogel ipuin-lehiaketa eta Erreterria Hiria ipuin lehiaketa.

**Haur eta Gazte literaturan apenas jorratu den gaia dugu transexualitatearena. Zerk bultzatu zintuen honelako gai bat lantzeraz?**

Egia da transexualitatearen gaia orain gutxira arte ez dela Haur eta Gazte literaturan gehiegi landu. Hala ere, azken aldian gaia-ekin harreman zuzena zein zeharkakoa duten hainbat eta hainbat lan argia ikusten ari dira, zorionez. *Sekretuen hamaika zapo*ak liburua idaztera bultzatu ninduen hauxe izan zen: gaia-

rekiko berez sentitzen dudan begirunea, batetik; eta, bestetik, ni neu irakasle izanda, gaia eskolan lantzeko ikusten zein sentitzen nuen beharra.

**Liburua idazterako orduan, Chrysalis elkartearekin harremanetan jarri zinen. Nola otu zitzaizun eurengana jotzea eta nolakoa izan da eurekin lan egitea?**

Kontakizuneko lehendabiziko kapitulu idaztearekin batera, bi gauzez konturatu nintzen. Bata, zeinen zaila zen transexualitatearen gaia umeekin lantzea, haien neurria egindako istorio bat ahalik eta modu “naturalenean” idaztea, hiztegi egokia erabiltzea... Eta bestea, gaiaren inguruan sakon-

tzeko beharrezana. Horrengatik jo nuen Chrysalis elkartera. Email pare bat gurutzatu genituen eta azkenean nire herrian bertan bizi den eta gainera Chrysalis elkartereko bozeramalea ere baden Bea Severrekin elkartu nintzen. Oso baliagarria suertatu zitzaidan, gaiaren inguruan nituen zalantzak argitu zizkidalako. Bestalde, nire istorioa hornitzeko material gehiago helarazi zidan. Egia da Bea ezagutzeko aukera izan nuenerako, liburua erdi idatzirik nuela jada. Baina hark nire zalantzak argitzeaz gain, guztiz egokiak ikusten ez zituen beste detailtxo batzuei buruz haren iritzia eman zidan eta bion artean solasaldi oso interesgarria partekatu genuen.

**Nolakoa harrera izaten ari da liburua?**

Goizegi da oraindik irakurleen harrerari buruz hitz egiteko. Liburuak, berez, aste gutxi batzuk besterik ez daramatza kalean. Denborak esango digu proiektuak harrera ona duen ala ez.

**Aurtengo Durangoko Azokari begirara, zergatik gomendatuko zenuke 'Sekretuen hamaika zapo'ak' liburua?**

Istori polita kontatzen duela iruditzen zait. Transexualitatearen gaia lantzeaz aparte, sentimenduak oso presente dituen liburua ere bada. Hezkidetzan zein hezkuntzan emozionala jorratzen dituen lana da. Guzti hau, Haur eta Gazte literaturaren esentzia bere bigarrena gabe.





**Hau geldiezina izan dadin lortzen ari gara.**  
Harro gaude egunez egun emakumezkoen kirola bultzatzeaz.

**Sandra Sánchez**

